2015eko albisteen kronika

Euskaltzaindiaren arau eta gomendioei buruzko ikastaroa Eusko Legebiltzarrean

Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak zabaltzea xede duen ikastaroa egin zen urtarrilaren 14an Eusko Legebiltzarrean. Gasteizko parlamentariei zuzenduta egon zen eta Akademiak eta Eusko Legebiltzarrak antolatu zuten, lankidetzan. Xabier Kintanak, Mikel Gorrotxategik, Miriam Urkiak eta Andres Alberdik eman zuten.

Euskaltzaindiaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko hitzarmenean, beren-beregi agertzen da bi erakundeok ikastaroak eta jardunaldiak egingo dituztela, Eusko Legebiltzarreko langile eta parlamentarien hizkuntza-prestakuntza areagotzeko asmoz.

2013an, testuak eraikitzeko estrategiez jabetzeko ikastaroa antolatu zuten. Ikastaroak Euskaltzaindiak argitara emandako *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburua izan zuen abiapuntu eta Pello Esnal liburuaren koordinatzaileak eman zuen.

Arauak, izendegiak, hiztegiak, corpusak

Ikastaro berriaren helburua, aldiz, honako hauxe izan zen: Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak edota aholkuak Eusko Legebiltzarraren barnean zabaltzea.

Euskera. 2015, 60, 1. 295-321. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hauek izan ziren gai nagusiak:

– «Euskaltzaindiaren arauak, aholkuak eta gomendioak; euskara batua eta euskalkiak; ahoskera». Xabier Kintana euskaltzain oso eta Euskaltzaindiko idazkariak eman zuen.

– «Onomastika eta toponimia». Mikel Gorrotxategi euskaltzain urgazle, Onomastika zerbitzuko arduradun eta Onomastika batzordeko idazkariak eman zuen.

– «Euskaltzaindiaren hiztegiak, corpusak eta hizkuntza baliabideak». Miriam Urkia euskaltzain urgazle, Euskaltzaindiaren Hiztegia egitasmoaren eta Hiztegi Batuko lantaldeko arduradunak eman zuen.

– «Jendaurrean euskara zuzen eta egoki erabiltzeko jarraibideak». Andres Alberdi EIMA lan-programaren arduradun ohi eta Euskaltzaindiaren Zientzia eta Teknika hiztegia biltzeko egitasmoko kideak eman zuen.

Aitor Etxeberria Eusko Legebiltzarreko Hizkuntza Normalizazio teknikariak aurkeztu eta itxi zuen ikastaroa.

Euskaltzaindiak eta EHUk Euskarazko Tesien IV. Koldo Mitxelena Sariak

Urtarrilaren 16an Euskarazko Tesien IV. Koldo Mitxelena sariak banatu zituzten Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak. Sariok bost jakintza-arlori dagozkie: Zientziak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; eta Artea eta Giza Zientziak. Hurrenez hurren, hauek izan ziren sarituak: Ostaizka Aizpurua, Igor Ayesta, Oihane Jaka, Urtzi Ruiz de Azua eta Ibon Egaña.

Sariak antolatzen zituzten bi erakundeen izenean, honako hauek mintzatu ziren, Euskaltzaindiaren egoitzan egin zen ekitaldian: Andres Urrutia euskaltzainburua, Adolfo Arejita Iker sailburua, Iñaki Goirizelaia errektorea eta Jon Zarate Euskararen arloko errektoreordea.

Euskera 2015_1.indd 296 17/10/16 13:08

Saritutako tesiak

Zientziak:

Egilea: Ostaizka Aizpurua Arrieta
Tesia: «*Myotis capaccinii* saguzar hatz-luze arrantzalea: aldaketa trofikorako gako ekologikoak, sentsorialak eta jokabidezkoak».

Ingeniaritza eta Arkitektura:

Egilea: Igor Ayesta Ereño
Tesia: «Polimerozko zuntz optiko aktiboen ikerkuntza, laser eta anplifikagailu gisako funtzionamendua hobetzeko».

Osasun Zientziak:

Egilea: Oihane Jaka Irizar
Tesia: «LGMD2A gerrietako muskulu-distrofiaren adierazpen-analisiaren aplikazioa gaixotasunaren diagnostikoan, eta sagu-ereduan eta giza eredu zelularretan oinarritutako karakterizazio fisiopatologikoan».

Gizarte eta Lege Zientziak:

Egilea: Urtzi Ruiz de Azua Ormaza
Tesia: «DBHko ikasleen euskararekiko jarrera linguistikoak, motibazioa eta errendimendu akademikoa».

Artea eta Giza Zientziak:

Egilea: Ibon Egaña Etxeberria
Tesia: «Kritikarako hurbilketa literaturaren soziologiatik. Egunkari eta aldizkarietako euskal literatur kritikaren analisia (1975-2005)».

Euskera 2015_1.indd 297 17/10/16 13:08

Txillardegiren lanak bildu eta digitalizatzeko egitasmoa

Txillardegiren lanak bildu eta digitalizatzeko, 2015eko urtarrilean lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Jakin Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Iragarri zutenez, 2016an lana amaitu eta guztion eskura jarriko dute.

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* hizkuntzalari, idazle eta euskaltzain urgazlea hil zeneko hiru urte bete ziren egun berean, urtarrilaren 14an, aurkeztu zuten egitasmoa. Azaldutakoaren arabera, 1.000 idazlanetik gora, 22.000 orrialde, 60 milioi karaktere inguru idatzi zituen. Horiei gehitu behar zaizkie Txillardegiri buruzko azterlanak. Esan bezala, 2016an, lan guztiak «edonoren esku, doan eta libre, jarriko dira».

Mariano Izetaren *Dirua galgarri* eleberria elkarlanean berrargitaratu dute Baztango Udalak eta Euskaltzaindiak

Mariano Izeta Elizalde (1915-2001) ohorezko euskaltzain zenaren *Dirua galgarri* berrargitaratu zuten Baztango Udalak eta Euskaltzaindiak. Izan ere, 2015ean ehun urte bete ziren Izeta Elizondon sortu zela.

Lanak Auspoa sailean ikusi zuen argia lehen aldiz, 1962. urtean. Edizio hari aitzinsolasa Aingeru Irigarai euskaltzain osoak egin zion eta Izetak berak bere laneko zenbait hitzen esanahia argitzeko hiztegiñoa gehitu zuen.

2015eko edizioan, berriz, aitzinsolasak Baztango Udaleko Kultura eta Euskara zinegotziak eta euskaltzainburuak egin zituzten. Horretaz gainera, Jon Abril beratarra idazle baztandarraren biziaren gainean aritu zen eta, hondarrekoz, Paskual Rekalde euskaltzain urgazleak jatorrizko testua euskara batura egokitu zuen.

Unai Rementeria, Josune Ariztondo eta Ana de Castro Euskaltzaindian bisitan

Otsailaren 23an Unai Rementeria Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza diputatu eta foru erakundearen bozeramaileak, Josune Ariztondo Al-

Euskera 2015_1.indd 298 17/10/16 13:08

dundiko Kultura diputatuak eta Ana de Castro Euskara zuzendari nagusiak Euskaltzaindia bisitatu zuten.

Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Adolfo Arejita Iker sailburuak, Erramun Osa idazkariordeak eta Joseba Zabaleta kudeatzaileak hartu zituzten Aldundiko ordezkariak.

Bileran, bi erakundeen arteko lankidetza izan zuten mintzagai. Euskaltzaindiak esku artean dituen proiektuez gain, aurrera begira dituen asmoez ere hitz egin zuten.

2014ko Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak banatu dituzte Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak

Martxoaren 18an Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan 2014ko Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak banatu zituzten Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak. Bi erakundeok antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusia.

Sariok Gorka Martinez BBK Fundazioko buruak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman zituzten.

Urtero bezala, honetan ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, betiere Euskaltzaindiak izendatuta. Hauek izan ziren epaimahaikoak:

– A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.
– B mailan: Joseba Butron, Amaia Jauregizar eta Jabier Kaltzakorta.

Hauek izan ziren 2014ko saridunak:

A MAILAko sariak:

Narrazioaren alorra

Lehen saria: *Zergatik Panpox?*. Egilea: **Maddi Aiestaran** (Beasain - Gipuzkoa). Loinazpe-Beasain Institutua. Laguntzailea: Aloña Santa Cruz

Euskera 2015_1.indd 299 17/10/16 13:08

Bigarren saria: *Irriño baten bila*. Egilea: **Naia Aiestaran** (Beasain - Gipuzkoa). Loinazpe-Beasain Institutua. Laguntzailea: Iker Zarraga
Hirugarren saria: *Pianoaren zuri-beltzean*. Egilea: **Nerea Erdozain** (Bilbo - Bizkaia). Bilboko Gabriel Aresti Institutua.

Maila honetan, epaimahaikoak ondoko lana argitaratzeko gomendioa eman du:

Arranoaren hegaldia. Egilea: **Arantxa Bastida** (Azpeitia – Gipuzkoa). Azpeitiko Urola ikastola. Laguntzailea: Mikel Sarasua

Olerkiaren alorra

Lehen saria: *Zure izenaren....* Egilea: **Mikel Labaka** (Errezil - Gipuzkoa). Azpeitiko Urola ikastola. Laguntzailea: Mikel Sarasua
Bigarren saria: *Baldin eta ez balitz*. Egilea: **Ane Azpiazu** (Azpeitia - Gipuzkoa). Azpeitiko Urola ikastola. Laguntzailea: Mikel Sarasua.
Hirugarren saria: *Maitasunaren bidaia*. Egilea: **Leire Eizmendi** (Errezil - Gipuzkoa). Azpeitiko Urola ikastola. Laguntzailea: Mikel Sarasua.

B MAILAko sariak:

Narrazioaren alorra

Lehen saria: *Corrado Maccarinelli*. Egilea: **Oihane Gurrutxaga** (Legazpi - Gipuzkoa). Legazpiko Haztegi ikastola. Laguntzailea: Aitor Gurrutxaga.
Bigarren saria: Sari hau eman gabe geratu da.
Hirugarren saria: Sari hau eman gabe geratu da.

Olerkiaren alorra

Lehen saria: *Itzalen hitzak*. Egilea**: Johanna Ramirez** (Lesaka - Nafarroa). Berako Toki-Ona Institutua. Laguntzailea: Axun Almandoz.
Bigarren saria: Sari hau eman gabe geratu da.
Hirugarren saria: Sari hau eman gabe geratu da.

Euskera 2015_1.indd 300 17/10/16 13:08

Euskaltzaindia Azkoitian, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrenean

Martxoaren 27an Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrena zela-eta, Azkoitian izan zen Euskaltzaindia. Udalarekin batera, elkartearen omenezko ageriko bilkuran parte hartu zuen Akademiak. Bertan, Urrategi Alberdi Azkoitiko alkatea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Juan Bautista Mendizabal Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Gipuzkoako presidentea mintzatu ziren.

Ageriko bilkuran, bi erakundeok elkarren arteko errespetua eta aitortza adierazi zioten elkarri, Azkoitiko alkatea ondoan zutela.

Ondoren, Bergarako hainbat musikarik eta artistek egindako Peñafloridako Kondearen *Mozkorra parregarri* operaren zati batzuk eskaini zituzten. Kantariak Gorka Unamuno, Marije Ugalde, Julen Alberdi, Karlos Etxaniz eta Fran Martinez izan ziren, eta Leo Juaristi piano jotzailea; Jose Migel Elkorok egin zuen aurkezle lana.

Ekitaldiari amaiera emateko, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak eta Euskaltzaindiak opari bana egin zioten elkarri. Akademiak Elkarteari hiru liburu eman zizkion: Axularren *Gero* eta Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren ale bi: batak, jatorrizko testuaz gain, gaztelaniazko, frantsesezko, ingelesezko, alemanezko eta italierazko itzulpenak biltzen ditu; bestean, katalanez, galizieraz, errumanieraz, arabieraz, kitxuaz eta txineraz ere irakur daiteke Etxepareren lana. Biak argitaratuak ditu Euskaltzaindiak, Eusko Legebiltzarrarekin batera.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak, aldiz, erakundearen Estatutuen lehenengo artikulua jasotzen duen oroigarri bat eman zion Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindia 19. Korrikan

Euskaltzaindia 2015ean egin zen Korrika euskararen aldeko lasterketan izan zen. Martxoaren 29an 19. Korrika Bilbora heldu zen eta bost orduko ibilbidea egin zuen -orotara 45 kilometro- Enekuritik Areatzaraino. Akade-

Euskera 2015_1.indd 301 17/10/16 13:08

miak lekukoa eraman zuen 2.498. kilometroan, Hurtado Amezaga kalean hasita.

Adolfo Arejitak, Xabier Kintanak eta Erramun Osak eraman zuten lekukoa, erakundearen izenean. Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko kideen eskutik hartu zuten, eta Ikastolen Federazioko ordezkariei eman zieten. Ondoren Kontseiluak hartu zuen, eta, beti bezala, AEK-k egin zuen azken kilometroa.

Lekukoaren barruan zegoen mezua Lorea Agirre *Jakin* aldizkariko zuzendariak egina zen, eta berak irakurri zuen Bilboko Areatzan.

Euskaltzaindia liburu azoketan

Sara

2015eko apirilaren 6an, Pazko astelehenean, Sarako Idazleen Biltzarra egin zen. Euskaltzaindiak hiru liburu aurkeztu zituen: *Bahnar deitu Salbaiak*. Pierre Dourisbourek 1870ean idatzi zuen *Les Sauvages Bahnars* eta 1929an Jean Elissalde *Zerbitzari*k itzuli zuen. Azokan Henri Duhauk prestatutako edizio berria aurkeztu zen; *Mongongo Dassanza: Albaitaritza idazlanak (1692-1892)*. Txomin Peillenek paratua; eta *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942*. Natalia Zaïkak idatzia.

Aurkezpen ekitaldian hauek izan ziren: Henri Duhau, Txomin Peillen eta Xarles Videgain, azken hau Natalia Zaïkaren lana aurkezten eta Euskaltzaindia ordezkatzen. Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea den Frantxua Maitia ere mahaian izan zen.

Bilbo

Euskaltzaindiak parte hartu zuen Bilboko Liburu Azokan. Ekainaren 4tik 14ra bitartean Areatzan egin zen Azokan, saltokia jarri zuen Akademiak eta urte osoan argitaratutako liburuak izan zituen salgai.

Euskera 2015_1.indd 302 17/10/16 13:08

Euskadiko Liburu Ganbarak antolatzen du Azoka. Urtero legez, ekimenaren koordinatzailea den Asier Muniategik Euskaltzaindiari gonbita luzatu dio bere saltokia izan dezan. Aukera baliatuz, erakundeak azken nobedadeak eta bestelako lan batzuk jarri ditu salgai.

Durango

Urtero legez, azken 50 urteotan gertatu bezala, 2015ean ere Euskaltzaindia Durangoko Azokan izan zen.

Azokak urteurren biribila ospatu zuen: 50 urte. Horietan guztietan, Euskaltzaindia Durangon izan da eta hala egin zuen 2015ean ere. Beste zenbait argitalpenez gain, Akademiak nobedadeak izan zituen salgai: besteak beste, *Erlea* aldizkariaren 9. zenbakia eta *Euskera* argitalpenaren azken bi zenbakiak. Azoka abenduaren 4tik 8ra arte egin zen.

Gerediaga elkartearen eta, horrenbestez, Durangoko Azokaren sortzaileak -«eurak izan ziren Gerediagako eta Azokako lehenengo hazia landatu zutenak»- omendu zituen 50. Azokak eta Argizaiola saria eurei eman zien. Saridunen artean Jose Luis Lizundia euskaltzain emeritua zegoen.

Bestalde, 50. Durangoko Azokari hasiera emateko, ekitaldi berezia egin zen abenduaren 4an, San Agustin Kulturgunean. Besteak beste, Gerediaga elkarteko bazkideak, Azokako guneen arduradun eta erakundeetako ordezkariak batu ziren ekitaldian. Euskaltzaindiaren izenean, Xarles Videgain buruordeak hartu zuen hitza.

*Orotariko Euskal Hiztegi*aren laugarren argitaraldia sarean

Apirilean *Orotariko Euskal Hiztegi*aren laugarren argitaraldia sarean jarri zuen Euskaltzaindiak. Argitaraldi berri horretan, lan nagusia Auspoa bildumatik ateratako corpus bateko adibideekin OEH osatzea izan zen. Izan ere, arruntzat eta egunerokotzat jotzen ziren hitz, esapide edo egitura gramatikal batzuen lekukotasun eskasaz konturaturik, hainbat hutsune betetzeari ekin zitzaion.

Euskera 2015_1.indd 303 17/10/16 13:08

Auspoa bildumaren digitalizazioak eskaintzen duen ondareaz baliatuz, herri literaturako adibideei OEH-n sarrera handiago emateko asmoa hartu zuen Euskaltzaindiak. Honetarako, 26 liburuko corpus bat osatzea erabaki zen, gehienbat herri kutsuko eta XX. mendeko obrez osatua, baina zaharragoei ere (hala nola Frantziako Iraultzari edo Frantsesteari buruzko bertsoei) tartea eginez.

Berrikuspen horren ondorioz, sarrera, azpisarrera edo adiera berri asko (guztira 1.310) daude argitaraldi honetan; gainerakoak ere adibide berriz aberastu direlarik, horien artean asko lehenago testuetatik ateratako lekukotasunik ez zutenak (azken hauek guztira 362).

«Denon esku dago euskara biziaraztea» mintegia

Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren ekimenez, apirilaren 17an «Denon esku dago euskara biziaraztea» mintegia egin zen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Mintegiaren xedea euskararekiko zenbait alderdi aztertzea izan zen, XIX. mendeko azken aldetik abiatuta.

2015ean bete ziren 150 urte Sabino Arana jaio zela. Hori dela eta, XIX. mendearen amaiera eta XX.aren hasiera kontuan hartu zituzten antolatzaileek, eta bitarte horretan zeuden gure hizkuntzarekiko aurreiritzi eta jarrerak aipagai izan zituzten. Era berean, euskarak «orain dituen ahultasun eta mehatxuak nahiz irekitzen zaizkion aukerak» ere hizpide izan ziren.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazioko presidenteak eta Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak azaldu zuten mintegiaren helburua.

Ondoren, mintegia egin zen. Hizlariak honako hauek izan ziren:

– Joseba Agirreazkuenaga: «Euskararen aldeko eta aurkakoak, hizkuntza ofizialen garaian (1794-1919). Euskal hiztunen paradisua museoan».

– Igone Etxebarria: «Sabino Arana eta euskara: ideia ardatz batzuk».

Euskera 2015_1.indd 304 17/10/16 13:08

– Mikel Zalbide: «XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan».

– Xabier Kintana: «Euskararen batasuna XXI. mendean indarberritzen segitzeko antzematen diren ahuleziak, mehatxuak eta aukerak».

Euskaltzaindia Izen Geografikoen batzorde espezializatuak antolatutako IV. Jardunaldian

Apirilaren 14an, Euskaltzaindiaren ordezkaritza izan zen Izen Geografikoen batzorde espezializatuak (Comite de Expertos en Nombres Geográficos) «Toponimia gaur egun» izenburupean antolatutako IV. jardunaldian, Valladoliden. Akademiaren aldetik, Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuaren arduradunak hartu zuen parte eta ahozko bilketaren inguruko azalpenak eman zituen.

Goiburuak berak azaltzen zuen bezala, toponimiaren alor banaezinak aztertu nahi ziren jardunaldian, kulturala eta praktikoa, alegia.

Alde batetik, toponimiak balio kulturala du eta horrela aitortu diote Nazio Batuek. Beste alde batetik, administrazio desberdinek datutegietan duten geo-erreferentziatutako informazioa ere bada.

Toponimoak ondare ez-materiala dira eta hizkuntzen zati izateaz gain, hizkuntzen historia ere gordetzen dute bere baitan. Era berean, historiaren lekuko dira eta informazio baliagarria ematen diete historialariei. Europako INSPIRE direktibak zehazten du toponimiak datutegi informatikoetan txertatu behar direla metadatuez lagunduta, egitura amankomun batean.

«Euskara ibiltaria» erakusketa Beasainen eta Portugaleten

Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA) ezagutaraztea helburu, «Euskara ibiltaria» erakusketa egin zen 2015ean Beasainen eta Portugaleten.

Euskera 2015_1.indd 305 17/10/16 13:08

Beasainen, Udalarekin eta Laboral Kutxarekin batera antolatu zuen Euskaltzaindiak eta maiatzaren 28tik ekainaren 5era arte egon zen zabalik, Igartza Jauregian. Inaugurazio ekitaldi bi egin ziren: goizean, Aritz Abaroa eta Amaia Jauregizar EHHAko teknikariek bi hitzaldi didaktiko eskaini zizkieten Beasaingo ikastetxeetako ikasleei eta arratsaldean, inaugurazio ekitaldi nagusian, erakusketa antolatu duten hiru erakundeotako ordezkariek parte hartu zuten: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Adolfo Arejita EHHAren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain EHHAren arduradun teknikoak; Laboral Kutxarenean, Xabier Egibar Negozio Garapenaren Areako zuzendariak; eta Beasaingo Udalarenean, Koldo Agirre alkateak.

Ekitaldian, egitasmoa hasieratik bultzatu duen Laboral Kutxako Juan Cidek argizaiola jaso zuen euskaltzainburuaren eskutik. Izan ere, Cidek erretiroa hartu zuen; hori dela-eta, urteetan egindako lana eskertu nahi izan zioten Akademiak eta Laboral Kutxak.

Portugaleten, aldiz, erakusketa azaroaren 17tik abenduaren 17ra bitartean egon zen zabalik, Santa Klara Kulturtegian, Akademiaren, Laboral Kutxaren eta Portugaleteko Udalaren ekimenez. Inaugurazio ekitaldian honako hauek hartu zuten parte: Euskaltzaindiaren izenean, Adolfo Arejita EHHAren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain EHHAren arduradun teknikoak; Laboral Kutxarenean, Pello Ugalde Laboral Lurralde zuzendariak; eta Portugaleteko Udalarenean, Estibaliz Freije Kultura zinegotziak.

Erakusketak iraun bitartean, Portugaleteko ikasleekin hainbat bisita gidatu egin zituzten Aritz Abaroa eta Amaia Jauregizar EHHAko teknikariek.

Euskaltzaindiaren urteroko bilkura Ipar Euskal Herrian

Ekainaren 11n Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herrian bilkura egin zuen. Bilera hau urtero egiten da, Frantziako Estatuko Elkarte-legeak dioena betez, eta Iparraldeko euskaltzainek -oso, ohorezko eta urgazleek- parte hartzen dute. Iparraldeko euskaltzainez gain, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak joaten dira.

Euskera 2015_1.indd 306 17/10/16 13:08

Bilkura Akademiaren Baionako ordezkaritzan egin zen.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman zion bilerari. Ondoren, 2014ko ekitaldien txostena aurkeztu zuen Xarles Videgain Iparraldeko ordezkariak, baita Iparraldeko berariazko egitasmo eta argitalpenena ere. Bestalde, Joseba Zabaleta kudeatzaileak 2014ko kontuen txostena eta 2015eko aurrekontua aurkeztu zituen. Azkenik, Michel Fagoagak 2014. urteari dagokion aditegi txostena aurkeztu zuen.

Txosten guztiak aho batez onartu ziren.

Bingen Ametzagaren idazlan guztien bertsio digitalaren dohaintza Euskaltzaindiari

Bingen Ametzaga idazle eta euskaltzain urgazlearen idazlan guztien bertsio digitalak dohaintzan eman zizkion Euskaltzaindiari Xabier Ametzaga Iribarren bere semeak, iazko ekainean. 298 lan biltzen dituzten bederatzi dokumentu nagusik osatzen dute dohaintza. PDF formatuan daude. Hamargarren dokumentua ere bada, lan osoaren xehetasunak eta aurkibidea azaltzen dituena. Lan guztiak Azkue Bibliotekaren Katalogoan txertatu dira.

Bingen Ametzaga Algortan (Bizkaia) jaio zen, 1901ean, eta Caracasen (Venezuela) hil, 1969an. Getxoko zinegotzi hautatu zuten 1931n eta Hezkuntza ministro izan zen Lehen Eusko Jaurlaritzan. Gaztetan ikasi zuen euskara.

Espainiako Gerra Zibila piztu zenean Ingalaterra, Argentina eta Venezuelara erbesteratu zen. Zuzenbidean lizentziaduna, Caracas eta Montevideoko unibertsitateetako irakasle izan zen.

1957ko uztailean Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen, euskara eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik.

Ipuin, poesia eta narrazioak idatzi zituen eta *Euskal-Esnalea, Euzko Gogoa* eta *Egan* aldizkarietan argitaratu. Hala ere, itzulpengintzan nabarmendu zen. Besteren artean, Oscar Wilderen *Reading baitegiko leloa*, William Sha-

Euskera 2015_1.indd 307 17/10/16 13:08

kespeareren *Hamlet*. *Danemark'eko Erregegaya*, Plinioren *Plini gaztearen idazkiak*, Eskiloren *Prometeu burdinetan*, Juan Ramon Jimenezen *Platero eta biok* edota Goetheren *Lur-miña* obrak euskaratu zituen.

Pertsona itsuentzat egokitutako liburuak aurkeztu dituzte ONCEk eta Euskaltzaindiak

Inprimatu zen euskarazko lehen liburua, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* eta *Erlea* aldizkariaren azken bi zenbakiak, pertsona itsuentzat edota ikusmen urritasunak dituzten pertsonentzat egokituta. Horiek dira Euskaltzaindiak eta ONCEk iaz sinatu zuten hitzarmenaren lehen emaitzak eta ekainaren 24an aurkeztu zituzten Bilbon, Akademiaren egoitzan.

Aipatu lanok bi euskarritan eskaintzen dituzte: Braille alfabetoan eta audio bidezko Daisy sisteman. Horiek dira, hain zuzen ere, itsuek edo ikusmen urritasuna duten pertsonek liburuak irakurtzeko dituzten bi moduak.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak, Basilio San Gabriel ONCEko lurralde-ordezkariak eta Iñigo Arbiza komunikazioburuak egin zuten aurkezpena. Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea ere bertan izan zen. Izan ere, Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren bi edizio kaleratu dituzte, lankidetzan. Horren ondorioz, euskaraz gain, hamaika hizkuntzatan irakur daiteke: gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, alemanez, italieraz, katalanez, galizieraz, errumanieraz, arabieraz, kitxuaz eta txineraz.

Ekitaldiaren amaieran, Etxeparek 1545ean idatzitako hitzei ahotsa jarri zien Ander Cornejo mutil itsuak: «Euskara, jalgi hadi kanpora». Lehenbiziko aldiz, Braille alfabetotik mundura atera ziren hitzok. Andres Urrutiak honela laburbildu zuen unea: «Nik uste dut ahalik eta modurik egokienean, bete dela Etxeparek agindu ziguna, hau da, euskara mundura, plazara eramateko».

Euskera 2015_1.indd 308 17/10/16 13:08

Sei euskaltzain urgazle berriren izendapena

Uztailaren 17an, Donostian eginiko Osoko bilkuran, Euskaltzaindiak 6 euskaltzain urgazle berri izendatu zituen. Hona hemen zerrenda, ordena alfabetikoan: Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Roberto González de Viñaspre, Karmele Jaio, Iñaki Martinez de Luna, Patxi Salaberri Muñoa eta Blanca Urgell.

Arabako Foru Aldundiaren harrera

Uztailaren 22an Ramiro González Arabako ahaldun nagusiak eta Igone Martínez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak harrera egin zioten Euskaltzaindiari. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Adolfo Arejita Iker sailburua, Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea izan ziren.

Bileran, bi erakundeen arteko lankidetza izan zuten mintzagai. Araban hizkuntza babesteko eta sustatzeko beharrezkoak diren ekintzei buruz hitz egin zuten.

2015eko Xalbador Eguna

Ohi den legez, Urepelen (Nafarroa Beherea), ospatu zen Xalbador Eguna, Fernando Aire *Xalbador* oroitzeko. Urriaren 10ean eta 11n izan zen ekimena, eta urtero legez, Xalbadorrekin batera, beste pertsona bat omendu zuten, kasu honetan bi: Ximun Ibarra *Zubikoa* eta Juan Joxe Eizmendi *Errezil* bertsolariak.

Xalbador Eguna antolatzen duten Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak egitarau oparoa prestatu zuten. Kalakan taldearen kontzertuarekin hasi zen Xalbador Eguna, urriaren 10ean. Igandean, aldiz, Xalbadorren etxolara mendi ibilaldia egin zuten eta gero meza nagusia izan zen; bertan, omenduekin batera, Emile Larre ere izan zuten gogoan. Ondoren, Zubikoa eta Errezil bertsolariei buruz mahai-inguru bat egin zen. Bertso saioan,

Euskera 2015_1.indd 309 17/10/16 13:08

Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Juan Joxe Eizmendi *Loidisaletxe* eta Jose Luis Gorrotxategi aritu ziren.

Urepeleko Herriko Etxearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadi Irratiaren laguntzarekin antolatu zen egitaraua.

Nafarroa Oinez dela eta Euskaltzaindia Baztanen izan da

Urtero bezala, Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko festarekin bat egin, eta irailaren 25ean Baztanen izan zen Euskaltzaindia. Goizetik hasita, hainbat ekitaldi egin zituen: goizean, Euskaltzaindiaren Osoko bilkura egin zen, Baztango Udaletxean, Elizondon. Alkateak eta zinegotziek harrera egin zieten euskaltzainei. Ondoren, euskaltzainek ikastolako bi egoitzak bisitatu zituzten. Arratsaldean, Mariano Izeta idazle, bertsozale eta ohorezko euskaltzaina omendu zuten, bere jaiotzaren mendeurrenean.

Mariano Izeta omentzeko ekitaldia Euskaltzaindiak eta Baztan Ikastolak elkarlanean antolatu zuten eta Arizkunenea Kultura Etxean egin zen.

Elena Zabaleta Baztan ikastolako lehendakariak hasiera eman zion ekitaldiari eta ondoren Paskual Rekaldek hartu zuen hitza. Mariano Izetaren jaiotzaren mendeurrenaren karietara antolatu zen ekitaldian, Izetaz gain, Baztango bi euskaltzain urgazle gogora ekarri zituen: Joxe Azkarate Etxandi eta Blas Fagoaga Ariztia.

Bion aipamena egin ondoren, Mariano Izetaren *Dirua galgarri* eleberria izan zuen hizpide, «Mariano Izetaren euskara, euskara batua eta euskalkiak *Dirua galgarri* eleberrian» hitzaldiaren bitartez. Besteren artean, gogoan izan zuen Baztango Udalak eta Euskaltzaindiak berrargitaratu zutela liburua, urtearen hasieran. 2015eko edizio honetan, bi artikulu bildu ziren: bata, «Mariano Izeta, zertzelada biografikoak», Jon Abrilek eginda, eta bertzea, «Idazlanaren gaineko ohar zenbait», Rekaldek berak prestatua. Horretaz gainera, Rekaldek jatorrizko testua euskara batura egokitu zuen. Baztango Udaleko Kultura eta Euskara zinegotziak eta euskaltzainburuak hitzaurre bana idatzi zuten.

Euskera 2015_1.indd 310 17/10/16 13:08

Amaitzeko, «Mariano Izetaren kontuak gure ikasgelan» deituriko kontakizuna aurkeztu zuten Baztan ikastolako ikasleek, eta aurtengo festaren kanta abestu zuten.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzek amaiera jarri zioten ekitaldiari.

Euskaltzaindia 2015eko Ondarearen Europako Jardunaldietan

Urtero legez, 2015ean ere Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak. «Burdina» izenburupean, ekitaldi ugari egin ziren urrian, Bizkaiko herri askotan. Euskaltzaindiak «Burdina eta euskara» izeneko hitzaldi zikloa antolatu zuen.

Euskaltzaindiak hiru hitzaldi antolatu zituen: urriaren 20an Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduraduna burdinak gure geografian utzi duen lorratzaz mintzatu zen: meategiak, burdinolen izenak... Hitzaldiaren izenburua «Burdinaren lorratza euskal toponimian» izan zen.

Bigarren hitzaldia hilaren 22an izan zen. Egun horretan, «Olak eta burdingintza euskal literaturan» hitzaldia eman zuen Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoak. Burdinak euskal literaturan izan duen eragina eta utzi duen arrastoaz hitz egin zuen.

Urriaren 29an zikloaren azken hitzaldia izan zen, «Norteko ferrokarrila: trena bertsolarien ahotan» izenburupean. Mikel Aizpuru UPV/EHUko irakasleak bertsolariek nola ikusten zuten trenbidea aztertu zuen, Oihana Iguaran bertsolariaren laguntzarekin.

«Euskal literatura XX. mendean. 25 urte» erakusketa Euskaltzaindian

Urriaren 2an «Euskal literatura XX. mendean. Jon Kortazar. 25 urte» izeneko erakusketa zabaldu zen Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilboko Plaza Barrian.

Euskera 2015_1.indd 311 17/10/16 13:08

2015ean 25 urte bete ziren Kortazarrek izen bereko liburua plazaratu zuenetik eta urteurrena ospatzeko, Mundakako idazle, irakasle eta euskaltzain urgazlearen lanari buruzko erakusketa antolatu zen.

Literatura vasca: siglo XX liburua 1990ean argitaratu zen, gaztelaniaz, eta 2000. urtean euskaraz, *Euskal literatura XX. mendean* izenarekin. 25 urte hauetan, 7 edizio kaleratu dira eta horien guztien aleak erakutsi ziren.

Jon Kortazarren lanaren beste alderdi batzuk ere izan ziren ikusgai: beste liburu batzuen aipamenak, itzulpenak, Lauaxetari buruz egindako ikerketak eta argitalpenak, argazkiak, oroigarriak edota objektu batzuk -Kortazarrek irabazitako Rosalía de Castro eta Lauaxeta Sarien ikurrak, Jose Hierro poetak Kortazarri egindako karikatura- besteak beste.

Bestalde, erakusketa hobeto ulertze aldera, liburuxka bat argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Bertan, Xabier Etxaniz eta Kirmen Uribe idazleen artikulu bana bildu ziren, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Erakusketak Mungiatik Bilborako bidea egin zuen. Izan ere, martxoan egon zen ikusgai Bizkaiko herri horretan. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiak Mungiako Udalaren laguntza izan zuen bere egoitzara ekartzeko, eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Kutxa Fundazioak eta Mundakako Udalak ere beren laguntza eman zuten.

Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa egingo duen lantaldea eratu da

Urriaren 14an Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa egingo duen lantaldea eratu zen Eusko Legebiltzarrean. Taldeak parlamentu-lexikoa bateratzea du xede, ondoren Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa osatu ahal izateko. Hiztegi horretan zuzenbide parlamentarioaren alorrean erabiltzen diren terminoak jasoko dira.

Lantaldea Euskaltzaindiak koordinatuko du eta Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko, Eusko Jaurlaritzaren IVAPeko eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietako zenbait kidek osatuko dute. Esan bezala, Legebiltzarrean burutu zen egitasmoa landuko duen taldea eratzeko

Euskera 2015_1.indd 312 17/10/16 13:08

ekitaldia, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea buru zela. Andres Urrutia euskaltzainburua ere bertan izan zen.

Lantaldearen partaideak hauek dira: Gotzon Lobera, koordinatzailea; Eneko Oregi, idazkaria (IVAP); Jesus Mari Agirre (Eusko Legebiltzarra); Mikel Iriarte (Nafarroako Parlamentua); Maite Imaz (IVAP); Juan Luis Derteano (Bizkaiko Batzar Nagusiak); Miren Irigoien eta Aitziber Eizagirre (Gipuzkoako Batzar Nagusiak); Ainhoa Sagardui eta Xabier Zalbide (Arabako Batzar Nagusiak); eta Miriam Urkia, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldeko burua.

Lantaldeak bi fasetan egingo du bere beharra: batetik, erakundeetako ordezkariek aurkeztutako datu-glosarioekin egingo du lan eta horretarako Euskaltzaindiak behar duen laguntza teknikoa eskainiko die; bestetik, adituen proposamenak aztertuko ditu eta horren gaineko erabakiak hartuko ditu.

Hori eginda, oinarrizko hiztegi juridiko eta parlamentarioa egingo da eta Euskaltzaindiaren Osoko bilkurari aurkeztuko zaio. Azkenik, Euskaltzaindiak onartu ondoren, hiztegia aurkeztuko dute eta argitalpen elektroniko bitartez hedatuko dute.

UPV/EHUko ikasleek master amaierako lanak eta doktorego tesiak Euskaltzaindian egin ahal izango dituzte

Euskaltzaindiak eta UPV/EHUk lankidetza-hitzarmen berria sinatu zuten urrian. Hitzarmen horren bitartez, bi erakundeon arteko elkarlanean esparru berri bat zabaltzen da, Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologiako master eta doktorego programan matrikulatutako ikasleen master amaierako lanak edo doktorego tesiak zuzentzeko xedearekin.

Hala, bi erakundeon arteko engaiamenduari esker, Euskaltzaindiak Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia master eta doktorego programako ikasleak hartuko ditu, praktikak eta ikerketak egin ditzaten bere zentroetan, hots, Bilboko egoitzan, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta gainerako ordezkaritzetan.

Euskera 2015_1.indd 313 17/10/16 13:08

Izan ere, indarrean dagoen arautegiaren arabera, masterretan kolabora dezakete unibertsitateko irakasleak ez diren profesional edo ikertzaileek, betiere masterreko Batzorde Akademikoak gainbegiratzen badu eta ikertzaileek erakundearen baimena lortuta. Horrek esan nahi du, sinatu den hitzarmenaren ondorioz, Euskaltzaindiko kideek parte hartu ahal izango dutela ikasle edo doktoregaien prestakuntza jardueretan.

2010eko maiatzean Euskaltzaindiak Euskampus proiektuari atxikitzeko hitzarmen bat sinatu zuen. UPV/EHUk, Tecnalia eta DIPCk bultzatutako proiektu horrek Nazioarteko Bikaintasun Campus kalifikazioa dauka, Espainiako Hezkuntza Ministerioak emana, eta gaur egun haren garapena Euskampus Fundazioaren ardurapean dago. Fundazioa Euskampus proiektuari atxikitako erakundeen bizkarrezurra da, eta lehendik zeuden lankidetza harremanak sendotzeaz gain, elkarlanerako esparru berriak ere eratzen ditu. Testuinguru horretan kokatzen da, beraz, Euskaltzaindiak eta UPV/EHUk abian jarritako elkarlanerako esparru berria.

Euskaltzaindian euren lana egin nahi duten master eta doktorego ikasleek bi erakundeotako ordezkari banarekin egin beharko dute lan: batetik, UPV/EHUko tutore akademikoarekin, eta bestetik, lanaren zuzendaria izango den Euskaltzaindiko kidearekin.

Era berean, Euskaltzaindiak erakundeari loturiko begirale bat izendatuko dio ikasle bakoitzari, eta hark antolatuko ditu prestakuntza jarduerak, praktika programaren arduradunarekin eta ikaslearen tutorearekin ados jarrita.

Hitzarmena Iñaki Goirizelaia UPV/EHUko errektoreak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuten. Eurekin batera Nekane Balluerka UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea eta Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Iker sailburua izan ziren.

Euskera agerkaria «Web of Science»ren ESCIko datubasean indizatuko da

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala *Emerging Sources Citation Index*eko (ESCI) datu-basean indizatzen da. ESCI Thomson Reuters en-

Euskera 2015_1.indd 314 17/10/16 13:08

presaren *Web of Science* plataformaren edizio berria da eta azaroan jarri zen abian.

Prestigio handiko agerkariez gain, gai aniztasuna eta esparru geografiko zabala ahalbidetzen duten aldizkariak indizatzen ditu ESCIk. Nazioarteko hainbat aditu eta ebaluatzailek, edizio berri honetarako esparru eta gai desberdinetan esanguratsuak diren agerkariak hautatu dituzte.

Web of Science plataforma, jakintzaren edozein diziplinari buruzko zientzia-argitalpenen (zientifiko, teknologiko, humanistiko eta sozialen) bibliografia-datu, aipamen eta erreferentzien bilduma handi batez osatuta dago.

Euskera aldizkaria indizatzeak, bestek beste, datu-base hauetan sartzeko aukera emango dio: *Science Citation Index Expanded™; Social Sciences Citation Index®*; eta *Arts and Humanities Citation Index®*. Horretarako ebaluazio zehatzago bat pasatu beharko du.

Euskaltzaindiaren artxibo-funtsen katalogoa sarean

Euskaltzaindiak zaintzen dituen artxibo-funtsen katalogoa guztion eskura jarri zuen azaroan. Katalogo horretan hiru motako funtsak biltzen dira: erakundearen beraren administrazio artxiboa (1919-1970); hainbat euskaltzain edo euskaltzaleren artxibo pribatuen funtsak; eta ikus-entzunezko artxiboaren funtsak. Guztiak sarean kontsulta daitezke Akademiaren webgunean, Azkue Biblioteka eta Artxiboa atalean.

Akademiaren funtsak Azkue Biblioteka eta Artxiboan zaintzen eta kudeatzen dira.

Azaroaren 27an Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Pruden Gartzia Azkue Biblioteka eta Artxiboko zuzendariak aurkeztu zuten Artxiboaren Katalogoa. Edukien garrantzia ez eze, Euskaltzaindiaren asmoa ere nabarmendu zuten: izan ere, funts horiek guztiak publiko egitean, Akademiaren eta gizartearen arteko harremana sendotu nahi da.

Esan bezala, Euskaltzaindiaren Artxiboaren Katalogoa hiru adar nagusitan antolatzen da:

Euskera 2015_1.indd 315 17/10/16 13:08

Erakundearen beraren administrazio artxiboa

Erakundearen dokumentazio administratiboa jasotzen du (1919-1970). Erakundeak berak sortutakoa da. Erakundearen sorreratik elikatu da euskarari buruzko hainbat dokumenturekin, administrazioari dagozkienak eta euskararen arautze eta bultzatze lanetan Euskaltzaindiak eskuratu dituenak.

Garai horretan Euskaltzaindiak, berezko lanez gain, euskal kulturaren hainbat ekitaldiren antolatzaile gisa jardun zuen. Bereziki frankismo garaian egindakoek, euskal kultura eta hizkuntzaren egoera islatzen dute: literatura-lehiaketak, bertsolari txapelketak, ikastolak, alfabetatze taldeak, eta abar. Horiek guztiak kontsulta daitezke.

Kontsultak egiteko, ondorengo erara sailkatu da: Euskaltzain osoak eta Zuzendaritza; Batzorde Akademikoak, Biltzarrak eta Jardunaldiak; Egiturazko Batzordeak; Harreman instituzional eta protokolozkoak; Ordezkaritzak; Kudeaketa eta administrazioa; Zerbitzuak.

Artxibo historikoa

Zenbait euskaltzain edo euskaltzaleren artxibo pribatuetako dokumentazioa jasotzen du. Une honetan hamabost dira, eta artxibo berriak eskuratu ahala, gehitzen joango dira.

Euskaltzaindiak, sorreratik eskuratu zituen euskararen historia iturriak ikertzeko hainbat dokumentu, baina lehen dohaintza garrantzitsua Resurreccion Maria Azkueren heriotzan gauzatu zen, 1951n, berak testamentuan utzitako liburutegia eta artxiboa eskuratu baitzituen erakundeak. Horrela hasiera eman zitzaion artxibo propiotik at berezitako funtsak eskuratzeari. Hala, bada, garrantzia handikoa izateaz gain, Azkuerena da Artxibo Historikoaren abiapuntua.

Azkueren funts horren gai nagusiak honako hauek dira: musika herrikoia eta folklorea, hiztegigintzako corpusak, berak sortuak edo Euskaltzaindiarentzat eginak, 1.080 igorleren gutunak, literatura, itzulpengintza lanak eta hizkuntzalaritza. Hiztegigintzako corpusak osotasunean funts honen barnean gorde dira.

Euskera 2015_1.indd 316 17/10/16 13:08

Gutuneriari dagokionez, Azkueri 1.080 igorlek zuzendutakoak eta sail batean ordenaturik zeudenak errespetatu dira. Azkuek berak igorritakoak nagusiki senide eta lagunei zuzendutakoak dira. Harreman garrantzitsuak mantendu zituen bere garaiko hainbat pertsonaia esanguratsuekin, besteak beste: Hugo Schuchardt, C. C. Uhlenbeck, Jakob Jud, Julien Vinson, Antoni Griera, Edward S. Dodgson, Karl Bouda, Alfredo Trombetti eta Eugenius Frankowski hizkuntzalariekin; Julio Valdés, Jose Antonio Donostiakoa, Vicente Goikoetxea eta Jesus Guridi musikagileekin; Charles Bordes, Higinio Anglès, Michel Flément musikologoekin; edota Pierre Broussain, Julio Urkixo, Damaso Intzakoa, Arturo Campion eta Pierre Lhande euskaltzainekin.

Azkueren funtsa jaso ondoren, ondorengo funts hauek eskuratu ziren: Seber Altube, Odon Apraiz, Pierre Broussain, Jon Etxaide, Juan Carlos Guerra, Andima Ibinagabeitia, Jose Maria Jimeno Jurio, Georges Lacombe, Pierre Lafitte, Jose Mari Satrustegi, Norbert Tauer, Antonio Tovar eta Jokin Zaitegi. Orobat, bi bilduma berezi: erakundearena (ABC) eta Euskal Herriko Unibertsitatearena (UPV/EHU). Horiek guztiak interesatu guztien eskura jarri dira.

Artxibo historikoaren funts bakoitzak ibilbide propioa izan du, horregatik, funtsen deskribapenean adierazten da noiz eta nola eskuratuak izan diren. Bestalde, funts bakoitzaren edukia zein den esaten da.

Ikus-entzunezko artxiboa

Erakundearen ekitaldiei, euskaltzainei edota euskaltzaleei dagozkien irudiak, soinuzko grabaketak eta bideoak jasotzen ditu, beste zenbait grabaketa dialektalekin batera. Neurri handi batean erakundeak bere jardunean bildutakoak dira. Materialak nagusiki Euskal Herriko eremu geografikoan eta euskararekin edo euskalgintzarekin lotutako bi alor nagusitakoak dira: zeregin akademiko edota publikoetan sortutako argazki, soinuzko material eta bideoak, eta baita ere edozein arrazoirengatik hainbat euskaltzalek emandako materialak.

Euskera 2015_1.indd 317 17/10/16 13:08

Bost funtsetan dago banatuta, horietatik hiru orokorrak: argazkiak, soinuzko dokumentuak eta bideoak, eta beste bi bereziak: Iraleren eta Xipri Arbelbideren soinuzko bildumak.

Kontsultak egiteko

Aurkezpenean azaldu bezala, kontsultak eta bilaketak era askotara egin daitezke, Internet bidez atzitzen den edozein artxibo-katalogotan egin daitezkeen bezala.

Baina berriz ere azpimarratu dute Azkue Biblioteka eta Artxiboko teknikariak ikertzaileen eta, oro har, hiritarren zerbitzura daudela edozein argibide emateko; beraiekin harremanetan jartzea, buruz buru, telefonoz edo e-postaz, da biderik onena informazio osoa eta zehatza lortzeko.

Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak «Euskara... Plazan!» ekitaldia egin dute abenduaren 3an

Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak «Euskara... Plazan!» ekitaldia egin zuten abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean. Bertan, bi erakundeok beste sei hizkuntzetara (poloniera, hebreera, finlandiera, nederlandera, georgiera eta errusierara) ekarri duten Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburua aurkeztu zuten eta Koldo Mitxelenari gorazarre egin zitzaion.

Ekitaldia EITBren laguntzaz gauzatu zen Eusko Legebiltzarrean eta zuzenean eskaini zen ETBtik.

Antton Valverderen musikaren laguntza zutela, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidenteak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Xabier Kintana euskaltzain eta Etxepareren liburuaren edizioaren arduradunak hartu zuten hitza.

Ondoren, «Kontrapas» poema irakurri zuten liburuak bildu dituen hizkuntzetan: nederlanderaz, finlandieraz, georgieraz, errusieraz, polonieraz eta

Euskera 2015_1.indd 318 17/10/16 13:08

hebreeraz. Ellen Elfrink, Joseba Ossa, Gotxa Todua, Irakli Akhvlediani, Dorota Krajewska eta Rachel Fuks Feinstein izan ziren ahotsa jarri zutenak. Euskaraz Ander Cornejo mutil itsuak egin zuen eta Braille alfabetoan argitaratuta dagoen liburuan irakurri zuen, 2015eko ekainean Euskaltzaindiak eta ONCEk kaleratu zutena.

Bestalde, ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutiak eta Bakartxo Tejeriak Eusko Legebiltzarraren ikurraren irudia duen oroigarria, Nestor Basterretxeak egindakoa, eman zioten Koldo Mitxelena zenaren Rafael semeari. Ondoren, irudi batzuk eta bi bideo ikusi ahal izan ziren: Mikel Urretabizkaiak Koldo Mitxelenari buruz zuzendutakoa, EiTBk propio egina ekitaldirako, eta Imanol Epelderen *Etxepare Rap* proiektuaren *Linguae Vasconum Primitiae*ren hitzaurrearen rap abestiaren bideoa.

Eugenio Arotzenaren antzerki-bilduma dohaintzan eman dio Oiartzungo Udalak Euskaltzaindiari

Eugenio Arotzenaren antzerki bilduma herritarren eta, bereziki, ikertzaileen esku ipintzea xede, Oiartzungo Udalak Eugenio Arotzenaren antzerkiaren inguruko funtsak dohaintzan eman dizkio Euskaltzaindiari.

Arotzenaren bildumak euskarazko antzerkiari eta antzerki unibertsalari buruzko 2.800 erregistro baino gehiago ditu eta liburu, aldizkari, artikulu, kartel edota argazkiak biltzen ditu.

Abenduaren 16an sinatu zuten dohaintza jasotzen duen dokumentua bi erakundeotako ordezkariek. Oiartzungo Udalaren aldetik, Jexux Leonet alkateak eta Josune Cousillas Kultura zinegotziak parte hartu zuten ekitaldian; Euskaltzaindia, aldiz, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Erramun Osa idazkariordeak ordezkatu zuten. Eugenio Arotzena bera ere ekitaldian izan zen.

Oiartzungo Udalak 2005ean erosi zion Eugenio Arotzenari bere antzerki-bilduma. Bildumaren tamaina eta ezaugarriak kontuan hartuta, egoki kudeatzeko gaitasuna duen erakunde baten eskuetan uztea erabaki zuen Udalak.

Euskera 2015_1.indd 319 17/10/16 13:08

Hala, dohaintzaren bidez, antzerki-artxibo horri erabilera publikoa eman nahi izan dio Oiartzungo Udalak, herritarren eta ikertzaileen eskura jarriz, euskal antzerkigintzaren hedapenean eragiteko. Hitzarmenak jasotzen duen legez, «bilduma herritarren eta ikertzaileen esku ipintzeaz hauxe ulertu behar da: funts horiekiko erreferentzia bibliografiko edo artxibistikoak katalogo estandarretan integratzea, erabiltzaileek horien bidez eskuratu ahal izan dezaten». Horretarako gaitasuna duen erakundea da Euskaltzaindia.

Datozen bi urteetan, Euskaltzaindiak Arotzenaren bilduma katalogatuko du eta, batez ere, komunitate zientifikoaren esku jarriko du materiala.

Bilboko alkatearen harrera Euskaltzaindiari

Abenduaren 18an Juan Mari Aburto Bilboko alkateak eta Koldo Narbaiza Euskara zinegotziak harrera egin zioten Euskaltzaindiari.

Euskaltzainei ongietorria eman ostean, Bilbo euskalduna aldarrikatu zuten alkateak eta euskaltzainburuak.

Akademiak Bilboko Udaletxean egin zuen Osoko bilkura. Gero, eguerdian, hitzarmena sinatu zuen Frisiar Akademiarekin.

Euskaltzaindiak eta Frisiar Akademiak Europa mailako hizkuntza gutxituen akademien arteko sarea bultzatuko dute

Abenduaren 18an Euskaltzaindiak eta Fryske Akademyk (Frisiar Akademia) lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Bilboko Udaletxean. Europa mailako hizkuntza gutxituen akademien arteko sarea sortzea da hitzarmenaren xedeetako bat.

Frisiar Akademiaren izenean Hanno Brand zuzendariak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Gainerako euskaltzainak ere izan ziren ekitaldian, egun horretan Bilboko Udaletxean egin baitzuen Euskaltzaindiak abenduko Osoko bilkura.

Euskera 2015_1.indd 320 17/10/16 13:08

Esan bezala, Europara begira daude bi akademiak. Europako hizkuntza aniztasunaren inguruko ezagutza eta errespetua sustatzea helburu, hizkuntza gutxituen akademien arteko elkarlana bultzatu nahi dute. Era berean, Europar Batasuneko erakundeei, sare horretako partaideen ordezkaritza onar dezaten eskatu nahi diete.

Bestalde, euskara eta frisiera hedatu eta indartzeko jarduerak antolatzea izango da bi erakundeon bigarren xede nagusia.

Testuinguru horretan, sinatutako hitzarmena zabaldu nahi dute bi erakundeok. Horretarako, Europa mailako gainerako eremu urriko hizkuntzen akademiek dokumentuarekin bat egin dezaten bultzatuko dute.

Horiek horrela, bi erakundeon arteko lankidetza euskal eta frisiar hizkuntzen eremuan gauzatuko da: Euskaltzaindiak eta Frisiar Akademiak lankidetza proiektuak sustatu eta garatu nahi dituzte, euskararen eta frisieraren aldeko sustapena bultzatzeko. Hitzarmenaren bidez bi erakundeok hizkuntzen ikerketari nola heltzen dioten ezagutu nahi da; hau da, hizkuntza bien garapenean erabiltzen dituzten teknika eta prozedurak zeintzuk diren eta nola erabiltzen dituzten ezagutzea da helburua.

Bestalde, bi erakundeok lankidetasun-politika bultzatuko dute, ikastaroak, mintegiak, kongresuak eta sinposioak elkarrekin antolatuz eta gauzatuz. Euskararen eta frisieraren egoerari eta bilakaerari buruzko txostenak landu eta sustatuko dituzte.

Era berean, Euskaltzaindiak eta Frisiar Akademiak elkarrekiko lana bultzatuko dute, bietako batek, edota biek batera eginiko argitalpenei laguntza emanez.

Euskera. 2015, 60, 1. 295-321. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskera 2015_1.indd 321 17/10/16 13:08